

SAN FRANZISKO ASIS-KOAK

CHORIAI EGIÑ ZIEN ITZ-ALDIA



San Franzisko-k aditu zionean frai Masseori Jaungoikoaren borondatea zala joan zedilla munduan predikatzerara, zeren autu zuen ez bere animaren salbaziorako bakarrik, ezpada, besteenerako, eman zitzaion bideari; esanaz frai Masseo eta frai Anjeli:

—«Goazen Jaungoikoaren izenean.» Eta debozio irazekiarekiñ zijoazela, begiak alchata ikusi zituen bide-ertzean arbol batzuek, eta bertan chit chori asko zeudela. San Franzisko artzaz arritu zan, eta esan zion lagunari: —«Nere senide choriai predikatzerara noa, ta ichedon zadazu bidean.» Eta kanpoan sarturik, asi zitzaion predikatzen lurrean zeuden choriai. Berelase arbol adarretan zeudenak joan zitzaiozkan, eta inguruan arturik, egon ziran geldi geldi eta isilik San Franziskok predikatzen zien bitartean. Itzaldia bukatu zuenean ere etziran mugitu, alik eta bedeinkazioa eman zien arteraño. Eta frai Masseok, frai Jakobo Masakoari gero kontatu zionez, San Franzisko aen artean zebillen, kaparekiñ ukitzen zituen, eta ala ere bat bakarrik etzan izutzen eta mugitzen, eta egiñ zien itz-aldia zan era onetakoa:

«Nere senidecho maite choriak: Jaungoikoak bete zaituzte bere onegñez, eta beragatik beartuak zaudete zuen Egillea kantu ederra-kiñ toki eta denbora guzietan bedeinkatu eta alabatzerara. Berak jantzi zaituzte luma aiñ kolore politekoakiñ, eta eman dizkitzute egoak eta libertadea nora nai joateko. Berak gorde zuen Noeren ontzian zuen arraza, eta eman zituten bizilekutzat zeru goi ori. Gañera bazkatzen zaituzte erein eta biltzeko lan gabe, eman dizute iturri-ibayetako ura zuen egarria itzaltzeko, mendi eta ballerak zuen buruak gordetzeko, zu-aritzak bertan zuen kabiak egiteko, eta ezaguturik ez dakizutela

ez iruten eta ez josten, berak jazten zaituzte, eta dauka zuen kontua eta zuen umeena. Zuen Egilleak aih maite zaituzten ezkerro, etzaitzte izan ester gaistokoak, kontrara, saya zaitzte beti egiñalean alabatzen eta bedeinkatzen zuen Jaungoikoa.» San Franzisko itz egiten ari zan bitartean, choriak luzatzen zituzten lepoak, iriki mokoak, zabaldu egoak, eta makurtu buruak lurra jotzeraño, ari aditzen artzen zuten atsegiñaren siñalean, eta San Franzisko oro bat poztutzen zari, eta arritu ere bai ikustean chorichuen umilltasuna, arreta eta lanotasuna, eta ainbeste kolore eta edertasunekoak zirala, eta argatik berak ere biotz irazekiarekiñ alabatzen zuen Jaungoiko Kriatzallea.

Azkenik, itzaldia bukatutakoan, San Franziskok gurutzearen siñalea egiñ ta eman zien baimena joateko, eta orduan danok eman zioten egatzeari, beteaz aireak kantu guziz miragarriakiñ, eta gero San Franziskok egiñ zuen gurutzearen eran, zabaldu ziran lau salletan; sall bat Sort-aldera, bestea, Sart-aldera, irugarrena Eguerdi-aldera, eta laugarrena Ipar-aldera; sall bakoitza zijoan kantari, aditzera emanaz, onela, San Franzisko, Kristoren Gurutze-eramallea Jaungoikoak argituta aritu zala bere predikuan, eta aren itzak, Gurutze Santuaren bidea eramanaz, zabalduko zirala munduaren lau parteetan. Eta egiaz, ala izan bear zuen, zergatik Kristoren Gurutzearen predikua, San Franziskok berritua, berak eta bere anayak eraman bear zuten Mundu guzira, eta mundu onetan nola etzeukaten berenik ezerere egaztichoen gisan, utzi bear zuten beren bizitza Jaungoikoaren Probidenzian.

(On Manuel Antonio Antía, Urrietako Erretore jaunak, gaztelaniatik itzulia).